


Euskal AEko industria prezioak % 2,9 igo dira 2022ko maiatzean aurreko hilaren aldean

2021eko maiatzaren aldean, industriako prezioek % 29,7 egin dute gora

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria prezioak % 2,9 igo dira 2022ko maiatzean aurreko hilaren aldean. Maiatzeko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industriako prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 29,7koa izan da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa xeheago batek agerian uzten du ezen 2022ko maiatzean sektore hauek izan dituztela prezioetan hazkunderik nabarmenenak aurreko hilaren aldean: *Kokeriak eta petrolioa fintzea* (% 7,2), *Metalurgia eta metalezko produktuak* (% 5,3) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 2,1). Aitzitik, hilabete artean prezioetan jaitsierak izan dituzten sektoreak hauek izan dira: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 0,6ko jaitsierarekin); eta *Garraio-materialaren fabrikazioa eta Erauzketa-industriak* (% 0,2koarekin biak).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraituz, prezioek 2022ko apirilaren aldean izan dituzten aldaketak positiboak izan dira denentzat: *Energiak* % 4,8 igo ditu prezioak, *Bitarteko ondasunek* % 3,7, eta *Ekipo-ondasunetan* % 0,1eko hazkundera izan da.

Kontsumo-ondasunen prezioak, orotara, % 0,9 igo dira aurreko hilaren aldean, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren % 0,9ko eta Kontsumo-ondasun iraunkorren % 0,4ko hazkundearen eraginez.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Maiatza 2022

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	137,0	2,9	29,7
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	111,1	-0,2	4,2
Manufaktura-industria	131,3	3,1	23,4
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	117,7	0,7	10,2
Ehngintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	103,2	-0,6	3,4
Zurgintza, papera eta arte grafikoa	134,5	2,3	25,8
Kokeak eta petrolioaren finitzen	180,8	7,2	70,5
Industria kimikoa	149,9	1,7	30,1
Botiken fabrikazioa	125,3	0,7	10,6
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	107,7	0,3	8,1
Metalurgia eta produktu metalikoak	146,0	5,3	33,6
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	120,9	0,4	9,0
Material eta ekipoen fabrikazioa	112,7	0,0	5,0
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	109,1	0,3	5,1
Garraiorako materialen fabrikazioa	105,0	-0,2	2,0
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	111,3	0,1	3,1
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	172,0	2,1	70,2
Ura	121,7	0,0	8,9
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	116,6	0,9	8,3
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	110,5	0,4	4,8
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	117,6	0,9	8,8
Ekipo-ondasunak	113,4	0,1	7,3
Bitarteko ondasunak	133,6	3,7	24,9
Energia	181,2	4,8	73,6

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2022ko Ekainaren 23a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Urte arteko terminoetan (2022ko maiatza, 2021eko maiatzaren aldean), prezio-hazkunderik handienak adar hauetan gertatu dira: *Kokeriak eta petrolioaren finitzea* (% 70,5eko igoera), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 70,2) eta *Metalurgia eta metalezko produktuak* (% 33,6). Prezioetan hazkunde txikienak izan dituzten sektoreak honako hauek izan dira: *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 2,0 gora) eta *Altzariak eta bestelako manufaktura-industriak* (% 3,1).

Helburu ekonomikoaren arabera ondaskun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da denentzat: *Energiarenak* % 73,6 igo dira, *Bitarteko ondasunenak* % 24,9 eta *Ekipo-ondasunenak* % 7,3. *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 8,3 igo dira, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 8,8 igo direlako, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrenak* % 4,8.

INFORMAZIO OHARRA

Eustatek eskerrak ematen dizkie egindako ahaleginagatik lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, maiatzeko indizea lagingaren % **95,09ko** estaldurarekin kalkulatu da, eta horren informazioa maiatzean eta ekainean jaso da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62